

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA SAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den irailaren 26an aho batez onartu zuen Deba Bailarako Industrialdea SAREN ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.